

PROGRAMA: EKIMEN EKINTZAILEEN SUSTAPENA

Enpresak eskualdatzeko laguntzak

<p>Xedea</p>	<p>Enpresak eskualdatzeko laguntzak, funtzionamenduan dagoen enpresa baten gutxienez % 80 eskuratuz, edozein dela ere haren forma juridikoa, 2020ko urriaren 13tik 2021eko irailaren 30era bitarteko aldian.</p> <p>Enpresa-eskualdaketa merkataritza-kontratu bidez egin beharko da, eskritura publikoan, merkataritza-funtsaren balioa adierazita.</p> <p>Salbuespena: Enpresaburu indibidualek egindako enpresa-eskuratzeek I. TITULUKO (Enpresak abian jartzeko eta sortzeko laguntzak) 2. atalean ezarritako diru-laguntzak jaso beharko dituzte.</p>
<p>Erakunde onuradunak</p>	<p>Honako hauek eskuratu ahalko dituzte atal honetan ezarritako laguntzen onurak: Bizkaiko Lurralde Historikoko nortasun juridikoko enpresak (banakako enpresaburuak eta profesionalak izan ezik), ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek.</p> <p>Horretarako, baldintza hauek bete behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> Funtzionamenduan dagoen enpresa baten gutxienez % 80 erosi izana 2020ko urriaren 13tik 2021eko irailaren 30era bitartean, biak barne. Egoitza soziala eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikokoan izatea. Eta, era berean, lantokia ere lurralde horretan izatea. Eskuratutako enpresaren jarduera ekonomiko berari eustea. Erakunde onuradunaren persona eskuratzailerako batek gutxienez honako hau izan behar du: <ul style="list-style-type: none"> egoitza Bizkaian duena, gutxienez etenik gabeko 3 hilabeteko antzintasuna duena, eta enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen eroldan alta emateko edo aldatzeko aitorten-dataren aurre-aurrekoak. egiaztatu behar du langabezia, enplegu-hobekuntza (betiere, lan-kontratuak ez badu gainditzen hitzarmenean ezarritako lanaldiaren % 40) edo aldi enplegu-erregulazioko espediente batek edo enplegu-erregulazioko espediente batek eraginda dagoela enpresak ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman aurretik. eta autonomoen araubide berezian edo haren pareko mutualitatearen batean alta ematea, 2020ko urtarrilaren 13tik urriaren 2021eko irailaren 31a arteko epean, egun biak barne. Azken baldintza hori ez zaie eskatuko elkartutako langile-kooperatibei, ezta lan-sozietateei ere, baldin eta araubide orokorrean sartuta badaude. Eta, gainera, eskuratzailerako batek, aurreko puntuan ezarritako baldintzak betetzen dituenak, banakako prestakuntza eta aholkularitza egin behar izan du 77/2021 Dekretuaren 1. ataleko erakunde onuradunekin. <p>Ez dira onuradun izango eskualdatzeko kontratua eskritura publiko bidez formalizatzen den unean eskualdatzen den erakundearen bazkide edo partaide izan diren bazkideak edo titularrak dituzten erakundeak.</p>
<p>Diru-laguntzaren justifikazioa</p>	<p>Gizarte Segurantzari autonomoen araubide berezian edo mutualitate baliokidean egindako kotizazioak ordaindu izanaren egiaztagiriak aurkeztuta egingo da. Kotizazio horiek, gehienez ere, urtebetez sortuko dira, enpresaburuaren, profesionalen eta atxikitzaileen eroldan alta eman edo aldaketak egin diren egunetik aurrera.</p> <p>Halaber, onuradunak dagozkion zerga-betebeharrak eta tributu-beharrak betetzen dituela ere egiaztatuko da</p>
<p>Diru-laguntzaren zenbatekoa</p>	<p>Diru-laguntzaren zenbatekoa 5.000 eurokoa izango da entitate onuradun bakoitzeko. Prestakuntza-ikastaroa eta aholkularitza egin ez duen baina Dekretuan ezartzen diren baldintza guztiak betetzen dituen bazkide edo sustatzaile bakoitzeko 2.000 euro igo ahalko da zenbateko hori; gehienez ere, bost eskuratzailerak.</p> <p>Erakunde onuradun bakoitzak gehienez jaso dezakeen diru-laguntza: 15.000 euro.</p>
<p>Arautegia</p>	<p>Bizkaiko Foru Aldundiaren 77/2021 FORU DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa.</p> <p>Diru-laguntzak emateko, norgehiagoka araubidea erabiliko da.</p>
<p>Epeak.</p>	<p>Ekintzak egiteko epeak: 2020ko urriaren 13tik 2021eko irailaren 30era bitartean. (biak barne)</p> <p>Eskabideak aurkezteko epea: 2021eko irailaren 6an hasiko da, 8:00etan, eta 2021eko urriaren 1ean amaituko da, 13:30ean</p> <p>Eskabideak eta gainerako dokumentazioa Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztu behar dira https://web.bizkaia.eus/eus/hasiera "izapideak" en bidez.. Horretarako, beharrezkoa da sinadura elektronikoa izatea edo BizkaiBai zerbitzuan alta emanda egotea..</p>